

# BAZN-aren dibulgazio jardunaldia

## Konposatu naturalak eta izurriteen kontrola

2015ko martxoaren 9an

Izurriteen hazkundeak XXI. mendean kontrolatzeko erronka sortzen du nekazaritzaren esparruan. Gainera, mundu mailan, gizarteak kontsumitzen dituen elikagaien bideragarritasunaren eta erabilgarritasunaren gain eragin zuzena daukate. Azken mendean, bereizketarik gabe erabilitako pestizida eta plagiziden erabilerak izurriteen kontrolerako, ingurumenean kalte esanguratsuak eragin ditu. Honez gain, hainbat izurrite, mota honetako konposatuekiko erresistenteak bihurtu dira, beraz hauen erabilerpena kaltegarria bezain alferrikakoa da.



Azken urte hauetan, asko ikertzen ari da, intsektuen bizi zikloetatik lortu daitezkeen erakargarri naturalen inguruan. Semiokimikoak deritzoten konposatu hauek, erakargarri natural moduan jarduten dute, intsektuen hainbat ziklo garratzitsuetan, ugalketa ziklo zein elikadura zikloetan esaterako. Konposatu hauen ikerketa (zeintzu diren, non sortzen diren, noiz...) ezagutza garrantzitsua ematen digu plagen erakargarri moduan erabiltzeko. Konposatu hauek, ingurumenarekin adeitsuak diren pestizida eta plagizidekin batera, aukera ematen digute produktu agrokimiko selektiboagoak eta eraginkorragoak sintetizatzen.



Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU), Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorren-SGIker- Bizkaiako Análisi Zerbitzu Zentralak BAZN, dibulgaziorako jardunaldi ireki bat antolatu du, ikerkuntza taldeentzako, ikasleentzako, zentru teknologikoentzako, eta enpresentzako zuzendua, tematika honen inguruan eta BZAN berak, gaur egun, eskeini ditzakeen aukera zientifiko-teknikoak azaltzeko.



Dr. Jhon J. Beck ikerlaria izango dugu gurekin. Kaliforniako AT Davis unibertsitateko irakaslea eta Estatu Batuetako Nekazaritza sailko Ikerkuntza Zerbitzuetako ikerlari nagusienetako bat da. "Host Plant Volatiles and Pest Control" hitzaldia emango du. Era berean, Dr. Luis Bartolomé Moro, BAZN-ko teknikariak, mota honetako ikerketak egiteko, kromatografia unitateak duen potentzialaren inguruko aurkezpen labur bat egingo du.



sgiker

Seminarioa  
Zerbitzu Orokorren  
Servizioa Zentratu Oinarria  
de Investigación



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herria  
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO  
IKERKUNTZAREN  
DAMPUSUA  
DAMPUS DE  
EXCELENCIA  
INTERNACIONAL

# BAZN-aren dibulgazio jardunaldia

## Konposatu naturalak eta izurriteen kontrola

### Izen ematea:

Izen ematea dohainekoa izango da eta plazak mugatuak izango dira, inskripzioak sartu ahala erregistratuko direlarik.

Izena emateko azken eguna 2015eko martxoaren 6a izango da.

Izena emateko web helbidea: [www.ehu.eus/sgiker/jornadas](http://www.ehu.eus/sgiker/jornadas)



### Egitaraua\*:

#### Martxoaren 9a, astelehena

##### ORDUA:

- |       |   |
|-------|---|
| 09:30 | Jardunaldiaren eta Anlisi Zerbitzu Zentralaren aurkezpena. Dr. Luis Bartolomé |
| 09:45 | "Host Plant Volatiles and Pest Control" hitzaldia. Dr. John J. Beck           |
| 10:45 | Galderak  |
| 11:15 | Geldialdia  |
| 11:45 | Analisi Zerbitzu Zentraleko gasen kromatografia unitateari bisita             |

\*Ekitaldi osoa gazteleraz eta ingeleses aurkeztuko da .

### Tokia:

Zientzia eta Teknologia fakultateko Paraninfo ondoko aretoan.